

FUNTSEZKO JARDUERA

1- ENPRESA

Gure enpresaren funtzionamendua erraza, azkarra eta efizientea izango da. Norbaitek gure enpresa kontratatu nahi izatekotan, gurekin harremanetan jarriko da. Nola? Gmail, telefono edo sare sozialen bidez. Eskaera heldu eta gero, gure ekipo teknikoaren harremanetan jarri eta 3 eguneko epe batean bezeroaren etxean agertuko dira gure produktua instalatzeko. Hau da, alarma enpresa bat bezala funtzionatuko dugu.

2- PRODUKTUA

Lehen esan bezala, saltzen ari garen produktua aurpegiarekin desaktibatzen den sarraila da, hau da, atea irekitzeko mekanismoa. Gaur egungo mugikorrek desblokeatzeko daukaten funtzionamendua ardatz bezala hartuta, sistema ziur eta eraginkor bat sortu dugu. Une oro segurtasuna ziurtatzen dizuna, eta manipula ezina dena. Horrezkero, lapurretak ia ezinezkoak bermatzen dituenak. Atean itsatsita joango da dispositiboa, eta dispositibo honek, lehen esan bezala, zure aurpegia irakurriko du eta atea irekiko du. Atean kamera moduko bat ipiniko dugu, software bati konektatuta, eta kamera honek aurpegiaren datuak irakurriko ditu, software-era bidaliko ditu, eta iada ipinitako datuekin kointziditzen badu, kable batzuekin konektatutako sarraila desaktibatu egingo da eta atea irekiko da.